



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abuztuaren 25a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, INAFRErekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” eta “INAFRErekiko hitzarmena, kofinantzatu gabeko etengabeko prestakuntzarako jarduketetarako” kontusailen betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, “Los becarios: una figura al límite entre la formación y el empleo” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Demografía de las empresas navarras del sector siderometalúrgico: análisis y evolución” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, “Cluster Medioambiental Ecopolis Zona Media de Navarra. Definición de modelo y proyecto de implantación como generador de empleo” izeneko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, San Martín Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Kirol Azpiegituren Plan Orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, apopilo-etxeen sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Agoitzeko Casa Diaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, INAFREkiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” eta “INAFREkiko hitzarmena, kofinantzatu gabeko etengabeko prestakuntzarako jarduketetarako” kontusailen betetze mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du INAFREkiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” eta “INAFREkiko hitzarmena, kofinantzatu gabeko etengabeko prestakuntzarako jarduketetarako” kontusailen betetze mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Enplegurako lanbide heziketa” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat, “INAFREkiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izenekoa,

1.650.000 euro dituena, eta beste bat, “INAFREkiko hitzarmena, kofinantzatu gabeko etengabeko prestakuntzarako jarduketetarako” izenekoa, 2.000.000 euro dituena. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Hona kontusail horien betetzea:

882001-84200-4819-242100 “INAFREkiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako”: 1.580.223 euro.

882001-84200-4819-242102 “INAFREkiko hitzarmena, kofinantzatu gabeko etengabeko prestakuntzarako jarduketetarako”: 1.580.223 euro.

Dirulaguntzak jaso dituzten pertsonen, kontzeptuari eta zenbatekoari dagokienez, ondoko taulan ageri da eskatutako informazioa.

Ez dago bestelako gasturik kontusail horiei egotzirik.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

882001-84200-4819-242100 "INAFREkiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako": 1.580.223 euro.

| ERAKUNDEA | Kontzeptua | Zenbatekoa |
|--|-------------------------|------------------|
| INAFRE | Hitzarmeneko gastuak | 240.600 |
| CEN | Prestakuntza ikastaroak | 499.440 |
| UGT | Prestakuntza ikastaroak | 269.400 |
| CC OO | Prestakuntza ikastaroak | 280.000 |
| ACABADOS T. COLOR, S.A.L. | Enpresa planak | 1.750 |
| ACSOLAR XXI, SLL | Enpresa planak | 1.975 |
| ADIAUNDIS, SL | Enpresa planak | 6.155 |
| ALBERTO BURGUI GOMEZ (GRUAS ALBERTO BURGUI) | Enpresa planak | 3.550 |
| ALDAKIN S.L | Enpresa planak | 21.500 |
| ARPA ASESORES | Enpresa planak | 6.060 |
| ASOCIACIÓN DE DISMINUIDOS FISICOS AMIMET CEE | Enpresa planak | 2.646 |
| ASPACE | Enpresa planak | 2.760 |
| ASTRAWALL IBERICA, S.L. | Enpresa planak | 4.675 |
| BILDU LAN, S. COOP. | Enpresa planak | 35.864 |
| CLEANING MACHINES, SL | Enpresa planak | 2.360 |
| COMPOSOLLERTIA, SAL | Enpresa planak | 1.750 |
| DIERRIKO PROIEKTU BIOLOGIKOAK, SAL | Enpresa planak | 1.750 |
| ECOIRUÑA, TRATAMIENTO DE RESIDUOS, SL | Enpresa planak | 2.659 |
| EGA INFORMATICA, SL | Enpresa planak | 10.256 |
| ELKARKIDE, SL | Enpresa planak | 612 |
| EMBEGA, S. COOP. | Enpresa planak | 29.590 |
| FONLOAN Y SERVICIOS, SL | Enpresa planak | 2.000 |
| FONTANERIA SANDUCELAY, SL | Enpresa planak | 2.313 |
| FRIO Y HOSTELERIA NAVARRA, SAL | Enpresa planak | 1.750 |
| LANERAKO ASPACE NAFARROA FUNDAZIOA | Enpresa planak | 7.337 |
| GOLEM DISTRIBUCIÓN, SL | Enpresa planak | 4.130 |
| GUPOST NAVARRA | Enpresa planak | 959 |
| ISPHORDING HISPANIA, SA | Enpresa planak | 2.093 |
| MAQUINARIA Y SERVICIOS ECA, SAL | Enpresa planak | 1.750 |
| PAPELES EL CARMEN, SA | Enpresa planak | 7.750 |
| PYRAMIDE ASESORES, SA | Enpresa planak | 1.949 |
| SERVIARGOS, SAL | Enpresa planak | 1.750 |
| SIC-LÁZARO, SL | Enpresa planak | 36.703 |
| SOCIEDAD COOPERATIVA DE HOSTELERÍA DE NAVARRA | Enpresa planak | 9.703 |
| TALLERES LORES, SA | Enpresa planak | 1.000 |
| TASUBIN, SA | Enpresa planak | 50.238 |
| TIRUÑA, SL | Enpresa planak | 4.691 |
| TRANSFORMADOS MAYO, SL | Enpresa planak | 1.031 |
| TRANSFORMADOS RUIZ, SL | Enpresa planak | 8.169 |
| TRUCK AND WHEELS LOGISTICS, SL (ikastaro aldaketa bat du) | Enpresa planak | 9.557 |
| GUZTIRA | | 1.580.223 |

Galdera, “Los becarios: una figura al límite entre la formación y el empleo” izeneko azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Los becarios: una figura al límite entre la formación y el empleo” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CCOOri enkargua eman baitzion “Los becarios; una figura al límite entre la formación y el empleo” izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 44.878 euro ziren (PES-127/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak, edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketara batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentariaren eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, “Demografía de las empresas navarras del sector siderometalúrgico: análisis y evolución” izeneko azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du “Demografía de las empresas navarras del sector siderometalúrgico: análisis y evolución” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak UGTri enkargua eman baitzion “Demografía de las empresas navarras del sector siderometalúrgico: análisis y evolución” izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 59.646 euro ziren (PES-130/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak,

edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, “Cluster Medioambiental Ecopolis Zona Media de Navarra. Definición de modelo y proyecto de implantación como generador de empleo” izeneko azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa jaunak galdera egin du “Cluster Medioambiental Ecopolis Zona Media de Navarra. Definición de modelo y proyecto de implantación como generador de empleo” izeneko azterlanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 21eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Inafrek 2008an Enpleguaren Behatokiaren arloko ekintzak abian jartzeko eginiko hitzarmenaren bosgarren klausulari buruz, haren bidez Nafarroako Gobernuak CENri enkargua eman baitzion “Cluster Medioambiental Ecopolis Zona Media de Navarra. Definición de modelo y proyecto de implantación como generador de empleo” izeneko azterlana egiteko. Aurreikusitako kostua 38.280 euro ziren (PES-131/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gobernu honek begi onez ikusten du azterlan baten ondorioz objektiboki eginiko proposamen oro.

Besterik da Nafarroako Gobernuak bere egitea –osorik ala hein batean– eginiko proposamenak,

edo pentsatzea proposamen horiek gauzatu behar diren ala ez, eta noiz gauzatu behar diren.

Kontuan izanik baliabideak mugatuak direla, Gobernuaren eguneroko jardunean erabakiak hartu beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaie jarduketa batzuei beste batzuen kaltetan, interes orokorra aintzat hartuta.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zehatz-mehatz aztertzen ditu azterlanetatik heldu diren emaitzak eta, kasua bada, proposamenak. Ezagutzari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik, proiektuen emaitzak interes handikoak dira, Nafarroan enpleguarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko informazio berria (edo gaurkotua) ematen dutelako. Informazio hori plangintza egiteko nahiz programa berriak prestatzeko erabiltzen da.

Nafarroako Gobernuari soilik dagokio, dena den, neurriak ezartzea (azterlanek ez dituzte beti jasotzen jarduteko neurriei buruzko proposamenak), eta, kasu honetan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak erabaki behar du zer neurri diren egokienak eta noiz aplikatu behar diren.

Eskatutako txostenak –azkena, exekutiboa eta proiektu bakoitzaren laburpena– idazki honen eranskinean aurkituko dituzu.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Gertatu diren luiziak lurzoruaren ezaugarri geotekniko txarregatik gertatu dira, errepidea ezarrita dagoen esparruan ez ezik, inguru osoan ere. Bertan, izan ere, labainketa fosil, narraste eta ezegonkortasun ugari atzeman daitezke, obrak hasi aurretik ere bazeudenak.

Ezaugarri geotekniko horiek eta obra berriekin lur-erazketa ugari egin izanak –landarezko jantzi bat eduki arte, haiek iragazgaitz bihurtzeko, ur ugari sar daitezkeen tokiak dira– ezegonkortasun handia sorrarazten du mendi-mazeletan.

Zoruan agertu diren arrakalak errepidearen plataforman eragina izan duten ezegonkortasun batzuen ondorioa dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du San Martin Unx eta Uxue arteko N-5310 errepide berrian eginiko lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Uxuera joateko errepide berrian izan diren luizien eta agertu diren arrakalen arrazoiei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Ez du ematen zirkulazioari eragiteko arriskua dagoenik, alde batera utzita une zehatz batzuetan, galtzada makinek hartu beharreko lan jakinen bat egiten ari denean, gerta daitezkeenak.

2. Luizien eta arrakalen bilakaera zein den, ondoko jarduketak eginen dira:

Lur-erazketa eremuetan, ukitutako ezpondak zelaituko dira eta zanga drainatzailerren bat eraikiko da, azaleko uren hustea errazte aldera eta ur hori lur-barrenean sartzea ekidite aldera.

Lubeta-eremuetan pitzadurak zigilatuko dira, harri-lubetaren oinen bat eraikiko da eta drainadu-

ra kaliforniarrak eginen dira lurrazpiko uren irteera errazte aldera.

3. Obra bukatuta dago eta kontratua kitatuta.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Kirol Azpiegituren Plan Orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Kirol Azpiegituren Plan Orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak Kirol Azpiegituren Plan Orokorrari buruzko galdera egin du (PES 85-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen helburua da kirola arautu, antolatu, sustatu eta koordinatzea Konstituzioak eta gainerako ordenamendu juridikoaren barnean Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion eskumenen eremuan. 79. artikuluan, honakoa ezartzen du: Foru Komunitateko Administrazioak egokitzat hartzen dituen erakundeen lankidetzarekin prestatuko ditu kirol instalazioen plan zuzendariak eta jarduketan programak, bai sektorekoak eta lurraldekoak bai orokorrak, Nafarroan kirol instalazioen eta azpiegituren sare bat orientatu eta sustatzeko, batetik, eta biztanleen kirol jarduera bultzatu eta haren kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Plan zuzendari horiek Nafarroako Gobernuak onetsi behar ditu eta Nafarroako Parlamentura igorri behar ditu, izapidetu eta onesteko. Planek honakoak bilduko dituzte: jarduketa azterlanak eta planak, horiek betetzeko epeak, eta behar dituzten giza, teknika eta aurrekontu baliabideak.

Testuinguru horretan, gaur egun Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoa lantzen ari da. Une honetan, amaierako dokumentua idazteko fasean dago. Behin hura bukatuta, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio, onetsi dezan, eta gero Nafarroako Parlamentura igorriko da, hari buruzko parlamentu-eztabaida egin dadin.

Kirol Azpiegituren Plan Zuzendaria aipatu plan estrategikoaren garapenean txertatuta dago, eta une honetan gaurko egoeraren diagnosia egiteko fasean gaude. Horrek, izan ere, honakoak dakartza berarekin:

– Lurraldearen antolamenduko planetatik heldu diren jarraibideak biltzen dituen zonifikazioaren araberako mapak egitea. Jarraibide horietan, lurraldearen antolamenduko planen jarraipen-batzordeen kezka jasotzen dira, eta plan horien garapenean eragile sozial eta politiko interesdunek hartu dute parte.

– Barruti, udal eta eragin-esparru bakoitzaren zuzkidurari buruzko azterlana.

– Defizit aipagarrienei buruzko azterlana.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, apopilo-etxeen sistemari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du apopilo-etxeen sistemari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du apopilo-etxeen sistemari buruz (PES 87-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritakoaren babesean, sistema publikoaren prestazioak gizarte zerbitzuen zorroetan definituta daude. Zehazki, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioen multzoa –haren aplikazio esparruak Nafarroako Foru Komunitate osoa hartzen du– Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan sartzen da. Gizarte Zerbitzuen Zorroa ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan aurreikusitakoaren arabera, gaur egun Nafarroako Foru Komunitateko sistema publikoaren gizarte zerbitzuen prestazioen katalogoan ez da sartzen inolako prestaziorik galderan aipatutako apopilo-etxeen izenarekin edo kontzeptuarekin bat datorrena.

Izen hori eman ohi zaie pertsona ezgaituak (gehienak adimen gaixotasunen ondoriozko ezgaitasunekin) bizi diren lojamenduei, eta galdera horri buruzkoa dela uste dugu.

Pertsona horiei, dauzkaten ezaugarriak direla eta, Nafarroako Menpekotasun Agentziak kudeaturiko prestazio ekonomikoak ematen zaizkie zenbait kasutan. Zehazki, Familian eta gizartean inte-

gratzeko laguntzak dira, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan aurreikusitakoak. Gizarte Zerbitzuen Zorro hori ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaz onetsi zen.

Aipatu pertsonen laguntza horiek banaka jasotzen dituzte. Haiekin lojamendu horietako egonaldia ordaintzen lagundu nahi da, eskaintzen diren zerbitzuen onurak har ditzaten (lojamendua, mantenua, arropa-garbiketa...), hori guztia haien gizarte errotzeari eusteko.

Horiekin batera, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroak bestelako egoitza-baliabide batzuk jasotzen ditu, adimen gaixotasunen bat duten pertsonen zuzenduak; esate baterako, egoitza-etxeak edo tutoretzako pisuak. Horien xedea da, adimen osasunaren arloan eskumena duten zerbitzuen iritziarekin bat, pertsona horien premiei erantzuna ematea, betiere gaitasun juridiko osoa duten pertsona horien borondatea errespetatuz.

Aipatu ditugun laguntza ekonomikoei hertsiki helduz, eta egindako galderan planteaturiko lehenengo gaiari erantzuteko, adierazi beharra dago guztira 42 pertsona direla aipatu prestazio ekonomikoaren onuradunak.

Laguntza horien xede-izaera kontuan hartuta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak haien erabilera egokia gainbegiratzeko du. Gainera, laguntza horien hartzaileak diren pertsonen eta, oro har, adimen gaixotasuneko arazoak izan eta establezimendu horietan bizi diren pertsonen jarraipena egiten diete kasuko adimen osasuneko zentroek edo/eta oinarrizko gizarte zerbitzuek.

Azkenik, esan beharra dugu gaur egun departamentuan lanean ari garena mintzagai ditugun ezaugarriak dituzten pertsonentzako pilotatze-esperientzia bat abian jartzeko, gizarte-alokairuko pisuetan, betiere etxebizitza sozialen programaren barruan eta Esku-hartze Soziokomunitarioko taldeak gainbegiratuta.

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 3ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera

egin du “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruz (PES 95-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak ondoko galderak egi ditu “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruz:

– Zein da kontusail horren betetze maila gaur egun?

– 2008an egin behar izan al zen transferentziarik kontusail honetan dirua egon zedin? Noiz egin zen aipatu transferentzia?

Eginiko lehen galderari dagokionez, ondokoa da, gaur egun, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailaren egoera:

| KONTUSAILAREN EGOERA | Zenbatekoa | Aurrekontuaren gainera % |
|---|--------------|--------------------------|
| Kontusailaren hasierako kreditua | 8.012.700,00 | 100,00 |
| Bateratua | 8.012.700,00 | 100,00 |
| Emandako laguntzak (baimendutako zenbatekoa) | 7.575.965,38 | 94,55 |
| Ordaindutako laguntzak (aitorturiko betebeharrak) | 4.057.030,30 | 50,63 |

Eginiko bigarren galderari dagokionez, nabarmendu beharra dago ezen, 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Legeko 4.10.d) artikulua araber, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailak zabalgarria zela

ekitaldi horretan. Hortaz, kontusail horretako kreditu aldaketak “kreditu gehikuntzen” bidez egin behar zirela, eta ez “kreditu transferentzien” bidez.

Hona kontusail horretan 2008an eginiko kreditu gehikuntzak, guztira, 2.915.009,86 euro egiten dutenak:

| Data | Zenbatekoa |
|----------------|-----------------------|
| 2008.07.31 | 380.790,89 € |
| 2008.07.31 | 119.988,97 € |
| 2008.08.12 | 219.230,00 € |
| 2008.08.28 | 230.000,00 € |
| 2008.09.12 | 400.000,00 € |
| 2008.09.29 | 165.000,00 € |
| 2008.10.13 | 850.000,00 € |
| 2008.11.28 | 550.000,00 € |
| Guztira | 2.915.009,86 € |

Iruñean, 2009ko apirilaren 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-1 errepidearen ibilbide zaharreko bazterrak, Altsasuko dermioan, garbitzeko kontuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-1000 errepideko bazterren garbiketa eta mantentze lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. NA-1000 errepidea –Altsasu eta Gipuzkoako mugaren artekoa– ez dago eta ez da behin ere egon abandonatuta. Errepide horren zainketa Foru Komunitateko errepideen zainketa integralaren kontratuetan jasota daude, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kudeatuta.

Kontratu horri jarraikiz egiten diren lanak hileroko programatzen dira, errepide-mailaren arabera. Errepide hori, hain justu, toki sarekoa da.

2. AZYSA enpresa da “Iruztungo Zainketa Zentroaren errepide guztien zainketa integrala, salbu eta A-15, A-10 eta A-1 autobiena, 2006-2009” kontratutaren hartzailea, eta hura ardurtzen da zentro horretako errepideen mantentze eta zainketa lanak egiteaz.

3. Ez dago garbiketa-hitzarmenik; izan ere, lan hori errepideen sarean egin beharreko zainketa orokorrean sartzen da, aurrekontuan dagoen diruaren arabera.

4. Erantzun egin zaio Udalaren errekerimenduari. Zehazki, martxoan egin horretan programaturiko garbiketa, bai errepide horretan bai aparkaleku gisa erabiltzen ahal diren ondoko eremuena ere, eta bideak zaintzeko ekipo bat erabili zen horretarako, ofizial batek, bi peoik, furgoneta batek eta dunper kamioi batek osatua. Martxoan berean, Barredoras del Norte enpresak –kontratu-hartzailearen enpresa azpi-kontratatistak– NA-1000 errepideko bazterrak garbitu zituen *bobcat* batekin eta eskuilekiko eta xurgagailuekiko kamioi batekin.

Apirilean berriz ere joan ziren NA-1000 arekak, bazterbideak eta ondoko eremuak garbitzeko. Bideak zaintzeko ekipo bat erabili zen horretarako, bi ofizialek, hiru peoik, bi furgonetak eta dunper kamioi batek osatua. Ekipo horrek hiru egun egin zituen eremu hori buru-belarri garbitzen.

Eremu hori garbitzeko aparteko baliabideak erabili arren, zail da eremu hori garbi egotea beti; izan ere, errepide ondoan aparkatzeko eremuetan kamioi askok igarotzen du gaua, eta zikindu egiten da eremua. Eremu eta areka horietan agertzen den zikinkeriarik gehiena aparkatuta dauden kamioietatik botatakoa da: pixaz betetako botilak, latak, paperak eta abar.

Hori dela eta, kontrolik gabe botatako zaborra gutxitze aldera, debekatu eginen da aparkaleku horietara sartzea; izan ere, A-1 errepidean, bai Nafarroan bai Gipuzkoan, behar adina zerbitzugune dago kamioiak aparkatzeko, eta ziurtatuta dago gidarientzako laguntza egokia, osasungarritasun-arazoak sortu gabe.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gaizkata haztearen gaineko proiektuari, ekoizpenari eta ingurumen-azterlanei buruz (PES-136). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2008ko apirilean, Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak baimena eman zuen, 2/1993 eta 17/2005 foru legeei jarraituz, Esa herriko arrain-instalazioetan gaizkatarekin lan egiteko.

Baimen hori, gainera, bat dator Kontseiluaren 2007ko ekainaren 11ko 708/2007 Erregelamendurekin. Izan ere, erregelamendu horren 16. artikuluan ezartzen da komeni dela hasierako askatze pilotu bat egitea, konfinatze eta prebentzio neurriak beteko dituen, merkataritza-instalazio bat jarri aurretik.

Horri dagokionez, proba pilotu gisa, baimena eman zen gaizkatekin lan egiteko, eta baldintza batzuk ezartzen ziren honako alderdiei buruz, besteak beste: aleen gutxieneko tamaina, erabili beharreko urmaelak eta hutsean mantendu beharreko urmaelak, nolako saretak jarri eta aleak nola markatu.

Aipatu erregelamenduak ez du jasotzen esperientzia pilotuen aurretik azterlanak egiteko beharra; izan ere, horixe da hain zuzen ere gisa horre-

tako esperientzien xedea. Hala eta guztiz ere, gaizkatarekin lan egiteko baimena eman aurretik, gaiari buruzko dokumentazioa berrikusi da. Dokumentazio hori hiru multzo handitan laburbil daiteke:

a) Europako erabakietan oinarritutakoak: esate baterako, azipentseriformeak kontserbatzeari buruzko erabakiak (11.59 eta 11.152 erabakiak).

b) Dokumentazio teknikoa, gaiari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa. Horretatik, garrantzitsuen izanen da, segur aski, Madrilen eginiko *Symposium on Conservation of the Atlantic Sturgeon Acipenser sturio in Europa* delakoari dagokiona.

c) Jada lanean ari diren instalazioak direla-eta egin diren azterlan batzuk, gure ustez garrantzitsuak direnak antzekotasun batzuk izan ditzakeen instalazio berri bat baloratzeko. Besteak beste, Riofríoeko instalazioetatik ateratzen diren uren kalitatearen analisia eta Kadizko Unibertsitateak (J.A. Hernando Casal) *Acipenser naccarii* gaizkatararen elikadurari buruz eginikoa.

Ez dago departamentu honetan hasitako espediente administratiborik. 2008ko abenduaren 30ean dokumentu batzuk aurkeztu ziren, hain zuzen ere ingurumen eraginari buruzko azterlan bat eta azterlan hidrauliko bat, aurretiko kontsulten tramite ez-formalaren barruan sartzen direnak. Izan ere, produkzioari buruzko proiekturako jardura sailkatuaren lizentzia eman beharko litzateke, eta hori ematea eta izapidetzea Esako Udalari dagokio. Hain zuzen ere, eta kontsultari erantzuteko, sustatzaileari horren berri eman zaio. Espediente administratibo bat sortuko da bakarrik Esako udala jardura izapidetzen hasi eta departamentu honi eskabidea aurkezten badio.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Agoitzeko Casa Díaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Agoitzeko Casa Díaz izeneko eraikin babestuan apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeko asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Agoizko Casa Díaz izeneko zaharberritzeko proiektuari buruz (PES-132). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki ezer laster apartahotel bat edo turismoko apartamentuak eraikitzeari buruz Agoizko Trinkete kaleko 9-11 zenbakietan dagoen eta babes integralaren graduarekin babestuta dagoen eraikinean?

1) Bai. Agoizko Udalak Casa Díaz izeneko zaharberritzeko oinarrizko proiektua igorri zion Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari. 2008ko azaroaren 30ean establezimenduaren sailkapenari eta mailari buruzko txostena eskatu zitzaion Produktu Turistikoen Antolamendurako eta Garapenerako Zerbitzuari, etxea 1. mailako apartamentu turistikoetarako zaharberritzeko oinarrizko proiektua erantsita.

2009ko urtarrilaren 29an, berriz, laguntza eskatu zen, Nafarroan azpiegitura turistikoak sortze aldera enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzei buruzko 79/2008 Foru Aginduaren babesean.

2.- Nafarroako Gobernuak uste al du Agoizko alkateak 2009ko urtarrilaren 30ean igorritako zaharberritzeko oinarrizko proiektuan errespetatzen dela Agoizko Udal Planaren 5. agiriaren 15. artikulua?

Departamentuak eginiko txostenak ontzat jo zuen aurkeztutako oinarrizko proiektua, eta zenbait ohar egin zituen, exekuzio-proiektuan jaso beharko direnak, eta txostena egiteko aurkeztu beharko da.

Agoizko Udalak aztertu beharko du zaharberritzeko oinarrizko proiektua udal planari egokitzen zaion ala ez.

3.- Agoizko Udalak Nafarroako Gobernuari igorritako zaharberritzeko oinarrizko proiektuaren kopia bat jaso nahiko nuke.

Casa Díaz izeneko zaharberritzeko oinarrizko proiektua Agoizko Udalari igorri zitzaion, egin beharreko txostenarekin batera.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Agoizko Trinkete kaleko 9-11 zenbakietako eraikinari buruz. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariak horri buruz adierazi beharra du ezen idazki hau sinatzen den egunera arte ez dela eraikin hori zaharberritzeko proiekturik aurkeztu Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

Nafarroako Gobernuaren erregistroko datubasean jasota ageri denez, otsailaren 13an apartamentu turistikoari buruzko proiektu bat igorri zitzaion Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 7an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak enpleguko dirulaguntza zuzenera eta langabetuen prestakuntzara bideratutako baliabide ekonomikoei buruz (PES-146/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Honako informazioa duen dokumentua erantsi dugu:

– 2008. urtea: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako gastua, “enpleguko dirulaguntza zuzen-

tzat” eta “langabetuen prestakuntzarako dirulaguntzat” har daitekeena.

– 2009. urtea: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurrekontuetan jasotako dirua, “enpleguko dirulaguntza zuzentzat” eta “langabetuen prestakuntzarako dirulaguntzat” har daitekeena. Halere, kontuan hartu behar da markatutako kontusailek langabetuen eta langileen prestakuntzarako aurreikusitako dirulaguntzen zuzkidura jasotzen dutela, bereizketarik egin gabe.

Azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuaren babesean, 2008. urtean enplegu finkoa sortzeko ordaindu diren dirulaguntzek 2.342.936,86 euro egiten dute.

Azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuaren babesean, 2009rako 2.939.382,60 euroko gastua aurreikusi da.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00146 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzano foru parlamentariak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak eta euskarazko hedabide nafarrek finantzaketa hitzarmenak sinatzeari buruz onetsitako mozioaren egoeraz (PES-147). Hona erantzuna:

Nafarroako Gobernuari eusten dioten bi alderdiek, UPNk eta CDNk, eta PSNk izenpetu zuten aurrekontu-hitzarmenaren ondorioz, 2009. urterako Nafarroako Aurrekontuei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legean "Euskararen inguruko programak hedabideetan" izeneko kontusaila onetsi zen, 9.567 euroekin. Horixe da kontusail horrek gaur egun ere duen zenbatekoa, onetsi zenetik ez baita inolako aldaketarik izan.

Iragarria dugu espero dugula kontusail horretan aurreko urtean beren lana guztiz edo zati batean euskaraz egiten duten hedabideetarako erabili zen kopuruaren antzeko diru-zenbateko bat eduki ahal izatea. Joan den urtean, 240.000 euro erabili ziren xede horretarako, eta kopuru hori atera nahiko genuke departamentuan gerta daitezkeen gaidikinetatik. Zenbateko hori eduki bezain laster, kasuko deialdia eginen dugu, laguntzak hedabideei banatu ahal izateko.

Bitartean, Euskarabideko zuzendaritzak zenbait bilera egin ditu Topagunearekin, hori baita guztiz euskaraz lan egiten duten hedabideak ordezkatzeko dituen entitateak, eta erabaki dute Administrazioaren eta hedabideetako ordezkariak lan egiteko lan mahai bat eratzea. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldetik, Euskarabideko eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak hartuko dute parte lan mahai horretan. Hedabideen izenean, Topaguneko ordezkariak, Nafarpreseko (tokiko hedabideen elkarteak) ordezkariak eta Nafarroako Kazetarien Elkarteko ordezkariak hartuko dute parte lan mahaian.

Hitzarmeneko testuaren zirriborroak honako egitura dauka: helburuak, laguntzen hartzaileak, administrazioen arteko koordinazioa, dirulaguntzen moduak, neurketa, epeak, laguntzen iraupea, oinarritzako baldintzak eta gutxieneko baldintzak.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 14an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du atzerriko hizkuntza bateko sakontze ikastaroak egiten dituzten irakasleei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako María Luisa Mangado Cortés foru parlamentari andreak galdera egin du atzerriko hizkuntzetarako sakontze ikastaroari buruz.

Honakoak dira atzerriko hizkuntzetarako prestakuntza-jarduerei buruzko datuak:

- Bertaratze partzialeko ingelesezko ikastaroak, irakasle guztientzat, zein espezialitatetan aritzen diren kontuan hartu gabe.

- 2008/2009 ikastaroan zehar, 146 irakaslek hartu dute parte haietan.

- Ikastetxe publiko eta itunduetako irakasleak, hizkuntza-eredu eta espezialitate guztietakoak.

- Kostua: 300 euro parte-hartzaile bakoitzeko. Kostuan honako kontzeptuak sartzen dira: asteko bi orduko bertaratze-orduak, programa eta baliabide didaktikoak eskuratzea eta *on line* erako bakar-kako laguntza, tutore batekin.

- Ikastaroa CNAIk emanen du, lan orduetatik kanpo.

- Hautapen-irizpideak: gehienez ere 150 parte-hartzaileentzako ikastaroak antolatzen dira, eta lehentasuna ematen zaie Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe publikoetan sustaturiko programa elebidunetan eta eleaniztunetan irakaslanean aritzen direnei. Lehentasuna emanen zaie, halaber, hizkuntzaren oinarritzko maila (A2) gainditua dutenei. Ez zen erreserbako zerrendak egiteko premiarik izan, zeren eta eskatzaile guztiei erantzun baitzaie.

- Udako ikastaroak atzerrian, atzerriko hizkuntzetako irakasleentzat edo beren espezialitatea atzerriko hizkuntza batean irakasten dutenentzat

(Deialdia otsailaren 11ko 42/2009 Ebazpenaren bidez egin zen, eta martxoaren 18ko 33. NAO-n argitaratu zen)

- Guztira 95 irakaslek hartuko dute parte, guztira, 2009ko uztailan eta abuztuan.

- Ikastetxe publiko zein itunduetako irakasleak dira, etapa eta hizkuntza-eredu guztietakoak, atzerriko hizkuntza batean irakasten duten irakasleak barne.

- Ikastaro gehienak bi astekoak dira.

- Banaketa: alemanezko 3 toki, frantsesezko 6 toki eta ingelesezko 86 toki.

- Alemanian, Frantzian eta Ingalaterran egiten dira, hurrenez hurren.

- Gutxi gorabeherako kostua: 1.500 euro parte-hartzaile bakoitzeko. Kostuak irakaskuntza, lojamendu eta mantenu gastuak hartzen ditu. Bidaia (kostua eta kudeaketa) parte-hartzaile bakoitzak ordaindu behar du.

- Hautapen-irizpideak: 3 kupo desberdin ezarzen dira: programa elebidun eta eleaniztunetako irakasleak, ikastetxe publikoetako irakasleak, oro har, eta ikastetxe itunduetako irakasleak. Gainera merezimenduen baremoak ezarzen dira irakaslanean esperientzia izateagatik eta prestakuntzaren-gatik, eta lehentasuna ematen zaio aurreko urteetan antzeko laguntzarik jaso ez duenari.

- Atzerriko ikastetxeetan irakaskuntzako praktikak egiteko programa

(Abenduaren 23ko 555/2008 Ebazpena)

- 25 irakaslek hartuko dute parte 2009an.

- Zortzi asteko 5 txanda antolatzen dira. Haietan, Bigarren Hezkuntzako irakasle batek eta Haur eta Lehen Hezkuntzako 4 irakaslek hartzen dute parte.

- Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe publikoetan sustaturik programa elebidun eta eleaniztunetan irakaslanean ari diren irakasleei zuzenduta daude.

- Kanadako British Columbian egiten dira.

– Parte hartzaile bakoitzeko kostua: 4.550 euro. Honakoak sartzen dira horren barnean: bidaia gastuak, lojamendu gastuak, mantenua, zentro espezializatu bateko ingeles eskolak, ikastetxe arrunt batean praktikak egitea eta praktika-aldi horren tutoretza.

– Hautapen-irizpideak: soilik programetan irakasten ari direnei edo irakatsiko direnei zuzenduta dago. Ezinbesteko baldintza: funtzionarioa izatea. funtzionarioa izatea. Lehentasuna: programa duen zentro batean behin betiko destinoa duten irakasleak, kreditatu direna, kasuko hizkuntzan B2 maila kreditatu dezaketenak; bigarren hezkuntzaren kasuan, lehentasuna dute irakasgai ez-linguistikoak ingelesez irakasten duten irakasleek, ingelesa irakasten duten irakasleen gainetik.

• Ingelesezko ikastaro trinkoa, ikasturtearen lehen hiruhilekoan, 2008ko azaro-abendutan

– Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe publikoetan sustaturik programa elebidun eta

eleaniztunetan irakaslanean ari diren edo ariko diren irakasleei zuzenduta daude.

– 12 irakaslek hartzen dute parte (lanetik erabat askaturik)

– 8 asteko iraupena du, egunean 5 orduko eskolekin.

– CNAI da hura emateaz arduratzen dena.

– Parte hartzaile bakoitzeko kostua: 800 euro (gehi ordezeko langileen nominak ordaintzea)

– Hautapen-irizpideak: programa duten ikastetxeetako batean behin betiko destinoa izatea. Lehentasuna emanen zaie jada irakaslanean ari direnei, eta lehentasuna, halaber, C1 maila kreditatzeko beharra dutenei. Tokiren bat hutsik geratuz gero, baimena emanen da beste ikastetxe publiko arrunt batzuetako irakasleek parte har dezaten.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20a

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko apirilaren 27ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du “Reyno de Navarra Arena” kiroldegia dela-eta eginiko azterlanei buruz (PES 140-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak emandako erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko pabilioia dela eta, honako galdera egiten ditu:

- Balizko ikusle kopuruari buruzko zer azterlan egin dira Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren edukiera erabakitzeko, Iruñearen antzeko tamainako hiriek dituzten kiroldegien alderaketaz gain?

Nafarroan kulturaren, kirolaren eta aisiaren arloan dagoen eskaintzari eta eskariari buruzko azterlana egin da.

Gainera, ekitaldi mota bakoitzera joan litezkeen pertsonen kopuruak kontrastatu ditugu musika-ekitaldiak, kultur ekitaldiak, ikuskizunak eta aisia-eta enpresa-ekitaldiak sustatzen dituztenekin, bai eta profesionalen taldeekin eta kirol federazioekin ere.

Antzeko hirietan dauden beste instalazio batzuen funtzionamenduari buruzko *benchmark*-ren zati gisa, ekitaldi bakoitzera joaten diren pertsonen kopuruari buruzko azterlana egin da. *Behchmark* horretan instalazioetako kudeatzaileekin eginiko elkarrizketak ere jaso dira.

Halaber, balizko hiru agertoki aurreikusi dira, ekitaldietara joaten diren ikus-entzuleen kopuruaren arabera. Egiatzatu da zer eragin duten hiru agertoki horietako bakoitzak instalazioaren ustiatetaren amaierako emaitzan.

- Zer azterlan egin dira Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren bideragarritasun ekonomikoari buruz?

Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, honako azterlanak egin dira:

- Beharren azterlan bat, instalazioaren tamaina egokia zehazteko.

- Plan estrategiko bat, instalazioaren estrategia ezartzeko, tokiko errealitatean eta Nafarroak eskaintzen dituen aukeretan oinarritzen da. Horretarako, honakoak egin dira:

- Jardueren urteko programa bat, instalazioan epe luzean eginen den jarduera aintzat hartzeko. Horretarako, antzeko instalazioei buruzko azterlanaz gainera, elkarrizketak izan ditugu gure lurraldean ekitaldiak antolatzen dituztenekin.

- Nafarroako kirolaren, aisiaren eta kulturaren merkatuari buruzko azterlana.

- Erabilera anitzeko beste instalazio batzuetarako bisitak.

- Antzeko instalazioak kudeatzen dituztenekin izandako elkarrizketak.

- Gure lurraldean ekitaldiak sustatzen dituztenekin izandako elkarrizketak.

- Ekitaldiak antolatzeko instalazioaren balizko konfigurazioei buruzko azterlan bat, instalazio aldagarri eta malgua egiteari begira.

- Inguruko instalazioetako prezioen tarifak, bai ekitaldietarako eremuak errentan jartzeko, bai kirol talde profesionalen entrenamenduetarako edo sarrerak saltzeko ere. Horrek aukera eman digu prezioak kalkulatzeko, betiere ingurunearen arabera eta ekitaldiak antolatzen dituztenek dauzkaten premien arabera.

- Antolamenduaren egitura egokiari buruzko azterlan bat, instalazioa ustiatzeko.

- Hipotesien koaderno bat egitea, haiek eredu ekonomiko eta finantzarioaren sarrera-datu gisa erabiltzeko, proiektuaren bideragarritasuna azterteari begira.

- Dirusarreraren eta gastuen aurreikuspenak, eskaini beharreko zerbitzuen tipologiaren arabera.

- Ustiatetaren gastuei buruzko kalkulua, instalazio bakoitzaren erabileratik heldu diren kostuak

kontuan hartuta (elektrizitatearen, energiaren eta uraren kontsumoak eta abar), betiere planteaturiko jardueren urteko programaren arabera.

– Ustiaketaren diru-sarrerei buruzko kalkulu bat, jarri diren prezioen tarifak kontuan hartuta.

• Eredu finantzario bat egitea. Eredu horrek finantziazioaren premiak planteatzen ditu, 5 urteko denbora-tarterako, eta honakoak jasotzen ditu:

– Arenaren jardueraren lehenbiziko bost urteetarako aurreikusitako ustiaketa-kontuak egitea.

– Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orriak

– Finantzazio beharrak

– Egoeraren balantzea

• Agertoki desberdinak planteatzea, urtean egiten diren ekitaldien kopuruaren eta haietara joaten diren ikus-entzuleen kopuruaren arabera. Ereduak gako-aldagaien aldaketan arabera egokitzeko duen sentiberatasunari buruzko azterlan bat egitea.

• Instalazioak produkzioan eta enpleguan izanen duen eraginari buruzko zenbatespena.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 15ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Zizur Nagusiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eskola-esparrua berrurbanizatzeko gastua finantzatze aldera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzano foru parlamentari andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak eta Zizur Nagusiko Udalak hitzarmen bat sinatzeari buruz aipatu herriko eskola-esparrua berrurbanizatzeko (PES-165). Hona galdera horren erantzuna:

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentua Zizur Nagusiko Udalarekin negoziatzen ari da hitzarmen hori egiteko. Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez-Nievas jaunak udalari jakinarazi dio ahal den bezain azkar sinatu nahiko lukeela.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruz (PES-142). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Mahatsondoaren eta ardoaren teknologia zentroa sortzeko asmoari buruz Nafarroako Gobernuak lehendakariak egindako proposamena dela eta, adierazi beharra dago ezin diogula erantzun planteatzen diren lau galderetako bakarrari ere. Nafarroako Gobernuak lehendakariak, Evenak Erriberrin duen egoitzan apirilaren 16an ospatu zen Ardoaren

Foro Estrategikoari amaiera emateko unean, proposatu zuen foroaren baitan aztertu beharra zegoela mahatsondoaren eta ardoaren zentro teknologiko bat sortzeko beharra. Zentro horren edukien artean, ardogintzaren arloko I+G+Ban sakontzeaz gainera, merkataritza arloak sartu beharko liriteke, bereziki merkatuen ikerketa eta merkataritzaren eta marketinaren berrikuntza. Nafarroako Gobernuak lehendakariaren hitz horiek sektorean bertan eta Ardoaren Foro Estrategikoan aztertu beharreko proposamen bat baizik ez ziren. Izan ere, proposamen hori, beste asko bezala, eztabaidatzen eta aztertzen ari da Nafarroako Jatorri Izendapenaren Plan Estrategikoa lantzeko garaietan, hain zuzen ere horixe izan baitzen Foro Estrategikoan berehala sustatzeko erabaki zen lehen ekintza nagusietako bat. Hori guztia dela eta, ez da bidezkoa une honetan zentroaren kontusailei edo ezaugarriei buruz hitz egiten jardutea, edo Evenak beteko lukeen tokiari buruz, edo proiektuaren egoerari buruz, ez baitago ez proiekturik ez hartutako erabakirik.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko nekazari gazteen lehen ins-

talaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion (PES-148). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Urte anitzeko gastua Nafarroako Gobernuaren apirilaren 20ko Erabakiaz baimendu zen eta Gobernuak hartutako erabakiaren 2. puntuan adierazi bezala, kopuru horiek 2009. urterako aurrekontu orokorretako 72230-721002-7700-412100 "Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER" kontusailaren kargura ordainduko dira.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruz (PES-151). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, 2009ko apirilaren 28an, urte anitzeko gastu bat hitzartu du, 2010etik 2016ra bitarteko ekitaldietan egitekoa. Haren xedea da 2007-2013 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapeneko Programan jasotako laguntza batzuk finantzatzea.

Basoberritzeari dagokionez, hona hitzartutako zenbatekoen urtez urteko azalpena:

| Ekitaldia | Nekazaritza-lurren basoberritzea |
|----------------|----------------------------------|
| 2010 | 1.000.000,00 |
| 2011 | 778.192,98 |
| 2012 | 726.927,21 |
| 2013 | 683.015,85 |
| 2014 | 650.215,64 |
| 2015 | 562.023,58 |
| 2016 | 492.823,43 |
| 2017 | 444.009,37 |
| 2018 | 310.084,08 |
| 2019 | 225.346,18 |
| 2020 | 160.892,87 |
| 2021 | 148.123,74 |
| 2022 | 138.257,06 |
| 2023 | 122.737,80 |
| 2024 | 77.825,00 |
| 2025 | 33.019,76 |
| 2026 | 13.525,20 |
| Guztira | 6.806.455,29 |

Neurriaren zenbatekoak 2010.eko ekitaldirako eta hurrengo ekitaldietarako aurrekontu orokorretako dagokion kontusailari egotziko zaizkio. Gaur egungoa, 2009kko aurrekontuarena, honakoa da: 740002 74200 7700 456700 Nekazaritza lurak basotzea. PDR FEADER.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Patxi Goñi Boluntarioen Eskolari, Agoizko Bilaketa Kultura Taldeak kudeatutakoari, emandako dirulaguntzei buruz (PES-144-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honen arlo desberdinetako artxiiboak aztertuta, egiaztatu dugu haietan ez dagoela inongo laguntzarik edo diru-laguntzarik

Patxi Goñi Boluntarioen Eskola hartzailea duenik, horixe baita galderan berariaz aipatzen dena.

Bai egiaztatu dugu, halere, Bilaketak dirulaguntzak jaso izan dituela. Bilaketa elkarteak, izan ere, galderan adierazi bezala, boluntarioen eskola hori kudeatzen duena da. Horrenbestez, hauxe da departamentuak eman dezakeen informazioa:

A) Gizarte gaien arloan, zehazki Nafarroako Mendekotasun Agentziaren eskutik, Bilaketa Elkar- teak, legegintzaldi honetan, kasuko deialdien bitar- tez, honako diru-laguntzak jaso ditu, hirugarren adinaren arloko gizarte boluntariotzaren inguruko jardueretarako programa orokorrak egiteko:

- 2007. urtean: 3.360,00 euro
- 2008. urtean: 2.520,00 euro

Diruz lagundutako programan honako jardue- rak jasotzen ziren, guztiak Agoizko Zaharren Egoi- tzaren eta Jubilatuen Elkartearen laguntzarekin eginak:

- Osasun arloa: Gorputzaren eta buruaren gai- neko nagusitasuna berreskuratzea, yoga eginez, buru-erlaxazioa landuz, igeriketa sofrologikoa egi- nez, gorputz adierazpeneko tekniken bitartez...

- Hezkuntza eta Kultura arloa: Adineko pertso- nen, taldearen edo/eta erkidegoaren gizarte- eta kultura-bizitza dinamizatzea.

- Aisialdiaren arloa: Adineko pertsoneri presta- kuntza ematea beren aisia sormenez eta modu gozagarrian bizi dezaten. Irudimena, gaitasuna artistiko eta estetikoak, eskuzko trebetasunak, balio ludikoak eta bizikidetasunaren izpiritua garatzera zuzendutako jardueretan parte har dezaten bultzatuko da, adimenaren eta eskuen artean koordina- zio hobea lortzeko. Honelakoak dira antolatzen

diren jarduerak: aisiarakoak eta kulturalak, txapel- ketak, hitzaldiak, ikastaroak, egunbeteko txango- ak, bidaia kulturalak (3 edo 4 egun) eta abar.

B) Bestalde, gazteriaren arloan, adierazi beha- rra dago Bilaketa Kultur Taldeak gazteria arlo bat baduela, Gazteen Entitateen Zentsuan 1989ko abuztuaren 9tik etenik gabe erregistratuta egon dena.

Gazteria arlo gisa, Nafarroako Gazteriaren Ins- titutuak gazteen elkarteei zuzendutako deialdien bitartez, honako kopuruak jaso ditu:

- 2007. urtean: 4.823,35 euro
- 2008. urtean: 2.027,07 euro

Honakoak dira laguntzaren xede diren jardue- rak: mendi irteerak, marrazketa eta pintura tailerra, ingurumena ezagutzeko tailerra, dramatizazio tai- lerra, argazki digitaleko tailerra, ikus-entzunezkoen tailerra, txotxongiloen tailerra, gorputz adierazpe- neko tailerra, barneko jokoen tailerra, bidaia kultu- rala, hitzaldiak, irakurketa eta abar.

Bestalde, Bilaketaren Gazteria Arloa 2004tik dago aitortua gazteen informaziorako bulego gisa.

Aitormen hori duenez gero, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteen informazio zerbi- tzuetarako kudeatzen dituen dirulaguntzen kasuko deialdien babesean, honako laguntzak jaso ditu:

- 2007. urtean: 11.586,34 euro
- 2008. urtean: 12.840 euro.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei- laria: María Isabel García Malo

Galdera, “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano foru parlamentariak galdera egin du 2009. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Nafarroa 2012 Plana. Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-149/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Hauxe da 544000-52250-6020-312802 Nafarroa 2012 Plana. Operazio-gelak berritzeko obrak kontusailaren betetze goera:

| | |
|--------------------------|-------------|
| Hasierako aurrekontua | 1.600.000 € |
| Aurrekontu bateratua: | 1.600.000 € |
| Aurrekontu baimendua: | 1.566.381 € |
| Esleitutako aurrekontua: | 55.252 € |
| Gauzatutako aurrekontua: | 0 € |

2.- Kontusailaren betetzea egindako aurreikuspenen arabera da. Haren lizitazio iragarkia martxoaren 27an argitaratu zen Kontratazioen Atarian. Eskaintzak aurkezteko epea, berriz, maiatzaren 11n bukatu zen, eta aurreikusita dago obrak uztailen hastea. 20 hilabeteko iraupena izanen dutela aurreikusi da.

3.- Aurten hastekoa den obraren xeda kirurgia eremua birmoldatzea da, baina horren barne ez dira sartzen ez erradiologia eremua ez laborategiak zabaltzea.

4.- Kirurgia eremu berria –gaur egun beheko solairuan dago–, birmoldatze lanak bukatzen direnean, lehenengo eta bigarren solairuetan egonen da: lehenengo solairuan kirurgia anbulatorioko bi operazio-gela eta zainketa intentsiboetako unitatea egonen dira, eta bigarren solairuan, berriz, kirurgia ortopedikoko sei operazio-gela estandar eta dagokien iratzartzeko gela egonen dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa prestatu eta aurkezteko atzerapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortésekin honakoa galdetu du idatziz:

– Zer dela-eta atzeratu da Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa berria prestatu eta aurkezteko?

– Noiz aurkeztuko da?

Erantzuna:

Hezkuntzaren Lege Organikoaren aitzinsolasean adierazten da hezkuntza sistemaren malgutasunak berarekin dakarrela, ezinbestez, ikastetxeei autonomia-esparru propio bat ematea.

Hezkuntza jardueraren alderdi garrantzitsuenetako bat da ikastetxeen antolaketa zuzena, hezkuntzaren kalitatea bermatzeko. Eta Departamentuaren betebeharrak da hezkuntza jarduera garatu behar deneko esparru orokorra ezartzea. Hala eta guztiz ere, ikastetxeek behar adinako autonomia-tartea eduki behar dute departamentuak definitutako esparru orokorra beren ingurunearen eta ezaugarrien arabera egokitzeke.

Helburuak eta arau orokorrak ikastetxeen autonomia pedagogikoko eta kudeaketa-autonomiako esparru batekin behar bezala konbinatuko duen esparru bat ezartzeko, erabakiak hartu behar dira, egiturak eta ebaluazio tresnak diseinatu behar dira... eta hori guztia behar beste patxadarekin aztertu behar da, arrakasta izanen duen produktua bermatzeko.

Egungo Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa gure ikastetxeen bizitza markatu du 1997. urteik (24/1997 eta 25/1997 foru dekretuak). Erregela-

mentu horiek inguruabar historiko eta sozial batzuei zegozkien, baina delako inguruabar horiek gaindituta daude egungo gizartearen bereizgarri den errealitate aldagarri eta anitzaren ondorioz.

Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeen Erregelamendu Orokorrak zenbait ikastetxe motatarako balio zuen (institutuak, lanbide heziketako ikastetxeak, hizkuntza eskolak, kontserbatorioak), baina errealitateak erakutsi du ikastetxe horiek antolamendurako berariazko tresnak behar dituztela, hain zuzen ere arestiko markoa gaindituta.

Departamentua lanean ari da esparru bakarra ez emateko ikastetxe guzti-guztiei, hain zuzen ere berariazko dokumentuak eskaini nahi baitizkie ikastetxeei ematen dituzten irakaskuntzen arabera.

Aldi berean, departamentuak, ongi dakienez dokumentu honek, Ikastetxeen Erregelamendu Organikoak, duen garrantzia, erabaki du parte hartzeko bideak zabaltzea hezkuntza erkidegoko sektore guzti-guztientzat, izan ditzaketen ekarpenak aurkez ditzaten, amaierako produktuaren hartzaileak izanen baitira. Izan ere, Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen eta departamentuaz kanpoko elkarten (zuzendarien elkarteak, sindikatuak eta abar) iradokizunak jaso ditugu.

Denbora eta lana behar dira ekarpen horiei guztiei buruz gogoeta egiteko eta haiek baloratzeke, ikastetxeen tipologiaren arabera berariazko dokumentuak zehazteko eta esparru komuna eta ikastetxeak behar duen kudeaketarako autonomia uztartzeko, eta horixe da departamentuak egiten duen apustua. Ikastetxeen Erregelamendu Organikoa ezin da epe jakin batzuetan landu; jokoan daukagu gure ikastetxeetarako antolamendu- eta kudeaketa-eredua, eta horixe da gure ikasleen arrakasta akademikoaren oinarrizko zutabea.

Hala eta guztiz ere, hauxe da une honetan Ikastetxeen Erregelamendu Organikoaren egoera: lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako erregelamenduen zirriborroak eginak daude, eta 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan eztaba-datuko dira. Aurrerago, foru dekretu gisa izapidetuko dira.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 27an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak karobien hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak burdinolen hondakinei edo modalitateei buruzko katalogorik ba ote duen (PES-141). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ez du inolako katalogorik egin burdinolen hondakinei edo modalitateei buruz. Haien azterlanik ere ez du egin.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren Guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du jakiteko ea nola beteko duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Barañaingo Auditorioaren guneko kudeatzaileekin lehen finantzaketa hitzarmenean adostutako aurrekontua, 120.000 eurokoa. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

PES-132 galderaren erantzunean adierazi genuen bezala, 120.000 euroko gehikuntza beste kontusail batzuetatik doikuntzak edo transferentziak eginez gauzatuko da.

Hori jakinarazten dizut, Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

